



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## **2017KO APIRILAREN 7AN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURA**

### **Etorri diren batzordekideak:**

**Mikel Agirrezabala Ezkurdia**  
**Miren Itziar Arratibel Imaz**  
**Jexus Peñagarikano Labaka**

Etorri diren zinegotziak:

Jon Mikel Iglesias Otegui

Maria Iciar Jauregui Huarte

Victoria Rodriguez Feloaga

**Idazkaria:** Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

Ibarran 2017ko apirilaren 7an udaletxeko bilera-aretoan, goizeko hamaikak direnean Tokiko Gobernu batzarrak bilera egin zuen eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden

Egintzaren buru Mikel Agirrezabala Ezkurdia alkatea izan zen eta bitarteko idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino

Udalburuak egintza ireki dela adierazi ondoren, bilkura honetarako ditugun gaiak aztertu eta eztabaidatu dira eta honako erabaki hauek hartu dira

### **LEHENA:**

#### **1.2017KO MARTXOAREN 24KO AKTAREN ONARPENA**

2017ko martxoaren 24an eginiko Gobernu batzarraren akta irakurri ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

#### **ERABAKIA**

**BAKARRA:** Onartzea 2017ko martxoaren 24an eginiko Gobernu Batzarraren akta



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## **BIGARRENA:**

### **2.-2017KO MARTXOAREN 22AN BURUTURIKO KULTURA ETA GAZTERIA BATZORDEAREN INGURUAN HARTURIKO ERABAKIAK**

#### **2.1 2016AN HERRIKO KULTUR ELKARTEEI EMANDAKO DIRU-LAGUNTZEN ZURIKETA.**

2016ko ekainaren 28ko 122. GAO on argitaratutako "Ibarrako irabazi-asmorik gabeko kultura talde eta elkartei 2016. urtean garatuko dituzten jarduera eta egitarauetarako diru-laguntzak emateko oinarriak" izeneko oinarriari jarraiki, 2017ko otsailaren 24a baino lehen jasotako laguntzaren %100 zuritu behar zuten onuradunek.

- Diru-laguntzen zuriketa aztertuta, Kultura eta Gazteria Batzordeak honakoa proposatu du:

2017ko martxoaren 22an buruturiko Kultura eta Gazteria Batzordearen irizpena kontutan izanik hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

#### **ERABAKIA**

LEHENENGOA: Alurr Dantza Taldeak aurkeztutako diru-laguntzaren zuriketari onespina ematea, eta ondorioz, zehazten denaren arabera, dagokion 2016ko diru-laguntzaren geratzen den %40a ordaintzea:

<b>TALDEA</b>	<b>40%</b>
ALURR DANTZA TALDEA	3.200,00 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.200,00 €</b>

BIGARRENA: Hauspibarra Kultur elkarteak 76,30 euroko balantze positiboa duela baieztatuta eta Koru Parrokialak 76,35 euroko balantze positiboa duela ikusirik, kobratu behar duten diru-laguntzaren %40etik kopuru horiek gutxitzea:

<b>TALDEA</b>	<b>40%</b>	<b>Aldeko balantzea</b>	<b>ORDAINTZERA</b>
HAUSPIBARRA	3.480,00 €	76,30 €	<b>3.403,70 €</b>
KORU PARROKIALA	360,00 €	76,35 €	<b>283,65 €</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.840,00 €</b>	<b>152,65 €</b>	<b>3.687,35 €</b>



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

**HIRUGARRENA:** Ibarra kultur elkarte eta taldeei dagokien 2016 urteko programazioa garatzeko diru-laguntzen %40aren guztirako 6.887,35 euroko gastua, 1.0000.430.00.00 2016 "Kultur taldeei transferentziak" kontu-sailari egoztea.

**LAUGARRENA:** Alurr Dantza Taldeak dantza lokala mantentzeko jasotako diru-laguntzaren zuriketari onespena ematea, eta ondorioz, geratzen den laguntzaren %40a ordaintzea:

TALDEA	40%
Azkuero lokala mantentze dirulaguntza	800,00 €

**BOSGARRENA:** Dantza lokalaren mantentzeari dagokion gastua 1.0000.434.334.20.00 2016 "Dantza hitzarmena transferentzia" kontu-sailari egoztea.

**SEIGARRENA:** Erabakiaren berri kontu-hartzaitzari ematea.

**ZAZPIGARRENA:** Erabakia interesatuei jakinaraztea. (E)

## **2.2 KULTUR ETXERAKO EKIPO INFORMATIKOEN EROSKETA**

Kultura Batzordeak liburutegiko ordenagailu zerbitzurako bi ekipo eta kultur etxeko administrari laguntzailearentzat ordenagailua zein eta inpresora berritzeko beharra ikusi duelarik, Montte S.L. enpresari horiek eskuratzeko aurrekontua eskatu zaio.

- Montte S.L. enpresak aurkeztutako aurrekontua ikusirik, Kultura eta Gazteria Batzordeak proposatu du:

2017ko martxoaren 22an buruturiko Kultura eta Gazteria Batzordearen irizpena kontutan izanik hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

### **ERABAKIA**

**LEHENENGOA:** Liburutegiko zerbitzu publikorako beharrezkoak diren 2 ordenagailuak eta kultur etxeko administrari laguntzailearentzat beharrezkoa dena Montte S.L. enpresari erostea eta aurkeztutako 3.873,21 euroko (BEZ barne) aurrekontua onartzea.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

**BIGARRENA:** Kultur etxeko administrari laguntzailearentzat beharrezkoa den laser inpresora Montte S.L. enpresari erostea eta aurkeztutako 365,42 euroko (BEZ barne) aurrekontua onartzea.

**HIRUGARRENA:** Ekipo horiei guztiei dagokien 4.238,63 euroko gastua 1.0000.626.333.00.00 Kultur etxerako ekipo informatikoak kontu-sailari egozte.

**LAUGARRENA:** Aipatutako kontu-sailean nahikoa kreditu ez dagoenez, Udal Kontu-hartzailearen onspena izanik, 1.0000.626.333.00.00 "Kultur etxerako ekipo informatikoak" kontu-sailean 2.500,00 euroko kreditu gehikuntza egiteko baldintzapeko konpromisoaz ekipoen erosketa egitea.

**BOSGARRENA:** Erabakiaren berri kontu-hartzailetzari ematea.

### **2.3 KULTUR JARDUERETARAKO EGURREZKO AULKIEN EROSKETA.**

Kultura Batzordeak herriko egurrezko aulki tolesgarriak berritzeko beharra ikusi duelarik, hiru enpresari horiek eskuratzeko aurrekontua eskatu die.

Udalak 150 aulki erosteko honako eskaintzak jaso ditu:

- 1.- Aranaz S.L. (Nafarroa): 3.155,98 € (BEZ eta garraioa barne)
- 2.- Manufacturas Alde, S.L. (Nafarroa): 3.678,45 € (BEZ eta garraioa barne)
- 3.- García hnos Nicolás García, S.A.: 6.232,11 € (BEZ eta garraioa barne)

- Jasotako aurrekontuak aztertuta, Aranaz S.L. enpresak aurkeztutako aurrekontua merkeena dela ikusirik, Kultura eta Gazteria Batzordeak proposatu du:

2017ko martxoaren 22an buruturiko Kultura eta Gazteria Batzordearen irizpena kontutan izanik hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

### **ERABAKIA**

**LEHENENGOA:** Herrirako beharrezkoak diren 150 egurrezko aulki tolesgarriak Aranaz S.L. enpresari erostea eta aurkeztutako 3.155,98 euroko (BEZ eta garraioa barne) aurrekontua onartzea.

**BIGARRENA:** Aulkiei dagokien 3.155,98 euroko gastua 1.0000.625.338.00.99 Festa altzariak kontu-sailari egozte.

**HIRUGARRENA:** Aipatutako kontu-sailean nahikoa kreditu ez dagoenez, Udal Kontu-hartzailearen onspena izanik, 1.0000.625.338.00.99 "Festa altzariak" kontu-sailean



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

2.000,00 euroko kreditu gehikuntza egiteko baldintzapeko konpromisoaz ekipoen erosketa egitea.

LAUGARRENA: Erabakiaren berri kontu-hartzailetzari ematea.

#### **2.4 SANBARTOLOMEAK 2017.**

Pasa den martxoaren 15ean egin zen Festa Batzordearen berri eman da. Koadrilei apirilaren amaieran egingo den hurrengo bilkurara koadrila egunari dagokion proposamena eramatea eskatu zaie.

Esku-programaren azalaren diseinuari dagokionez, Festa Batzordeak iaz hasi zen lehiaketarekin jarraitzea egoki ikusi du, eta parte-hartzea herritarrei soilik mugatu beharrean, irekia izateko proposamena luzatu da.

- Proposamena egokia dela ikusirik, Kultura eta Gazteria Batzordeak 2017ko jaietako esku-programaren azalaren diseinu lehiaketarako honako oinarriak onartu daitezela proposatzen du:

#### **2017KO IBARRAKO JAIETAKO DISEINU-LEHIAKETA: Oinarriak**

Ibarrako Udalak 2017ko Ibarrako jaietako esku-programaren azala eta kartela aukeratzeko lehiaketa antolatu du. Ondoren zehazten ditugu lehiaketa arautuko duten oinarriak.

##### **1.- Parte-hartzaileak.**

Lanak aurkeztu ahal izango dituzte Ibarran bizi edota ikasten duten 16 urtetik gorako pertsona guztiek. Parte-hartzaile bakoitzak gehienez bi lan aurkeztu ahal izango ditu.

##### **2.- Gaia eta testua.**

**Ibarrako jaiak 2017** izango da lan guztietan, ongi nabarmendurik, azalduko den testua. Ibarrako jaiekin zerikusia duen ezaugarriren bat edota irudiren bat jaso eta adierazi beharko da.

Generoaren irudikapenean erabilitako irudiek oreka bilatuko dute, rol eta estereotipo tradizionalak azpimarratu gabe, eta sexu, arraza, adin, kultura edo sexu-aukeren arloan diferentzien tratamendu gutxiesgarria ekidinez.

##### **3.-Tamaina.**

Esku-programaren azalak 21x21 zentimetroko neurria izango du. Diseinua neurri horietan edo neurri horien proportzioan aurkeztu beharko da.

##### **4.- Kolorea eta teknika.**



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Aukerakoa izango da. Aukeratutako teknika edozein delarik ere, diseinua paperean edo euskarri gogor batean aurkeztu beharko da 21x21 Zm-ko tamainan edo horien proportzioan.

Horretaz gain, formatu digitalean ere aurkeztu beharko da (JPG formatuan eta gutxienez 300 ppp-ko erresoluzioa izan beharko du).

**5.- Lan originalak.**

Aurkezten diren lanak originalak eta beste inon ez aurkeztutakoak izan behar dute.

**6.- Aurkezteko epea:** 2017ko ekainaren 12a eguerdiko 13:00ak baino lehen.

**7.- Aurkezteko lekua:** Ibarako kultur etxea.

**8.- Identifikazioa.**

Aurkezten den lanarekin batera, eta kartazal itxi baten barnean, egilearen datuak sartuko dira (Izen-abizenak, helbidea, NAN zenbakia, adina eta telefonoa). Kartazalaren kanpoaldean eta aurkezten den lanaren atzealdean goitizena idatziko da.

**9.- Informazio telefonoa:** 943-670399

**10.- Saria:** 300 euroko sari bakarra izango da.

**11.- Epaimahaia.**

Epaimahaia 5 pertsonak osatuko dute. Bere erabakia apelaezina izango da.

**12.- Erakusketa.**

Lehiaketara aurkeztutako lanak Udalak jendaurrean erakutsi ahal izango ditu. Espazio eta egutegi kontua dela eta, Epaimahaia izango da zeintzuk jarriko diren erabakiko duena, beti ere, kalitate artistikoa kontuan hartuta.

**13.- Lanak noiz jaso.**

Saririk irabazi ez duten originalak aurkeztu ziren lekuan bertan jaso ahal izango dira 2017ko uztailaren 10etik 14ra bitartean, 10:00etatik 13:00etara. Epe horretan jaso ez direnekin Udalak erabakiko du zer egin.

**14.- Saritutako lanaren jabetza.**

Saritutako lana Ibarako Udalaren jabetzapean geratuko da eta nahi hainbat erreprodukzio egiteko eskubidea izango du. Erreprodukzio horiek egoki deritzon publizitate lanetan erabiltzeko ahalmena izango du Udalak



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

eta kasu horietan autoreek ez dute inolako erreklamaziorik egiteko eskubiderik izango, eta jadanik eskuratutako sariaren zenbatekoaz gain beste diru-kopururik ere ezingo dute jaso.

**15.- Kalteak.**

Ibarako Udalak ez du bere gain hartzen lehiaketara aurkeztutako lanei gerta dakiekeen edonolako kalteren erantzukizuna.

**16.- Oinarriak onartzea.**

Lehiaketan parte hartzeak oinarri hauek erabat onartzea dakar berekin.

**17.- Interpretazioa.**

Oinarrietatik eratortzen diren zalantza eta desadostasunetan Ibarako Udalak interpretatzeko ahalmena izango du. Kultura Batzordea izango da lehiaketa honetan sor daitezkeen zalantza eta desadostasunak ebatziko dituen organo eskuduna.

2017ko martxoaren 22an buruturiko Kultura eta Gazteria Batzordearen irizpena kontutan izanik hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

**ERABAKIA**

LEHENENGOA: Onartzea 2017ko jaietako esku-programaren azalaren diseinu lehiaketarako oinarriak

**2.5 PAZKO ASTERAKO EGITARAU**

Pazko Asteari dagokion egitaraua eta gastuaren aurreikuspena aurkeztu du teknikariak. Batzordea ados agertzen denez,

- Zehazten den Pazko Astea-2017 egitaraua eta gastuaren onarpena egin dadin proposatzen du:

2017ko martxoaren 22an buruturiko Kultura eta Gazteria Batzordearen irizpena kontutan izanik hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

**ERABAKIA**

LEHENENGOA.- Pazko Asterako egitaraua onartzea:



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

- APIRILAK 18, ASTEARTEA: “Hau natura! Airea, lurra eta ura?” txotxongilo-emanaldia Bihar txotxongilo taldearen eskutik. 4 urtetik gorakoentzat. Arratsaldeko 17:00etan, Ibarako kultur etxean.
- APIRILAK 19, ASTEAZKENA: “KUTXA TXIKI MAGIKOAK” emanaldia (Bego Alabazan). 3-5 urte bitartekoentzat. Arratsaldeko 17:00etan, Ibarako kultur etxean.
- APIRILAK 20, OSTEGUNA: “ASIER KIDAM” magoaren emanaldia. Arratsaldeko 17:00etan, Ibarako kultur etxean.
- APIRILAK 21, OSTIRALA: “ELVI SABELIZTUNA”. Arratsaldeko 17:00etan, Ibarako kultur etxean.

**BIGARRENGOA.- 1.0000.226.334.00.06.2017 “Jarduera soziokulturalak”** kontu-sailari egozteko egitarauari dagokion gastua:

- BIHAR TXOTXONGILO TALDEA: 605,00 €
- ALABAZAN: 360,00 €
- ASIER KIDAM: 660,00 €
- ELVI SABELIZTUNA: 700,00 €
- EGILE ESKUBIDEAK (SGAE): 300,00 €

HIRUGARRENA: Erabakiaren berri kontu-hartzaitzari ematea.

## **2.6 ALTZARIAK ZAHARBERRITZEKO TAILERREKO IKASLEEN ESKAERA**

Altzariak zaharberritzeko tailerreko ikasleek izozgailu bat erosteko eskaera egin zuten. Informazio gehiago eskuratu artean, Batzordearen azken bilkuran gaia mahai gainean uztea erabaki zen.

Altzariak izan ditzaketen zomorroak akabatze modu egokia izozgailuan izoztea izan badaiteke ere, batzordekideek kultur etxera ekartzen diren altzariaren ardura ikasleena dela deritzote. Hori dela eta, altzariak zomorroak baditu, aldeztu aurretik tratatuta ekarri beharko litzatekeelako iritzia gailentzen denez, Batzordeak proposatzen du:

2017ko martxoaren 22an buruturiko Kultura eta Gazteria Batzordearen irizpena kontutan izanik hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko





**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## **ERABAKIA**

LEHENENGOA.- Altzariak zaharberritzeko tailerreko ikasleek izozgailu bat erosteko egindako eskaera ez onartzea.

BIGARRENA.- Erabakiaren berri altzariak zaharberritzeko ikasleei ematea. (E)

### **HIRUGARRENA:**

### **3.- 2017KO MARTXOAREN 17AN BURUTURIKO GIZARTE POLITIKAK ETA POLITIKA FEMINISTA ETA ANIZTASUNA BATZORDEAREN INGURUAN HARTURIKO ERABAKIAK**

#### **3.1.- URA ETA ZABOR TASEN SALBUESPENAK 2017**

2017 urterako ura eta zabor tasen salbuespenak eskatuz 23 eskaera jaso ditugu:

- 17 iazko onartuak
- 2 berri onartuak
- 4 berri ez onartua, dirusarreraren mugak gainditzeagatik.
- 4 iazko baja, ez aukeztuak.

Eskaera guztiak aztertu ondoren 19 familiari onartuko zaie aurtengo ura eta zabor tasetan salbuespen (I eranskinean zerrendatuak).

2017ko martxoaren 17an buruturiko Gizarte eta Politika Feminista eta Aniztasuna Batzordearen irizpena kontutan izanik hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

## **ERABAKIA**

LEHENENGOA: 2017 urterako ura eta zabor tasen salbuespen eskarien onartuen eta ez onartuen zerrenda onartzea (I eranskinean jasoak).

BIGARRENGOA: Erabaki honen berri ematea eskatzaile bakoitzari.



IBARRAKO UDALA  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## ERANSKINA 1.

### UDAL TASEN SALBUESPENA 2017

<b>ONARTUAK</b>			
15714662-G	12310803-F	15222194-N	72417951-J
12672464-Q	15100931-M	15215795-F	72423934Q
76188610-Y	15209066-V	31991099-P	72431017S
13614355-B	15111009-D	12590758-Y	72424253-J
08575435T	12661880N	72486996N	
<b>EZ ONARTUAK</b>			
72508172M	15871640A	53794536D	53190418C
<b>BAJAK/ EZ AURKEZTUAK</b>			
14937100A	15153861N	72485041N	12573976Z

### OHZren HOBARIA FAMILIA UGARIEI 2017

<b>ONARTUAK</b>			
34103719-D	44132876-Q	35771589-B	15953634-Y
72436970-B	72445334-A	72445353-E	72441023-Q
15987512-M	34109787-M	15971250-G	44168626-R
72445201-P	44147957-D	34100391-Q	44151070-V
44128013-Y	72449376-C	72445392-S	15997001-H
44133713-N	72445411-B	44147192-Y	44132215 -E
72445216-T	15991105-X		
<b>EPEZ KANPO</b>			
	44158600-A	34096007-W	
<b>BERRIAK</b>		<b>EZ ONARTUA</b>	
	34103553-G	<b>15923575-P beste jabetza bat dauka</b>	72457535-Z



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

<b>BAJAEZ AURKEZTUAK</b>			
72435299-L	15935136-T	72470749-A	72449447-E

### **3.2- 2017 URTERAKO OHZ-HOBARIA. FAMILIA UGARIAK**

2017 urterako OHZ-hobaria eskatuz 31 eskaera jaso ditugu:

- 26 iazko eskaera onartuak
- 3 eskaera berri (ogasuneko datuen zain gaude, beste jabetzarik ba ote duten jakiteko
- 4 baja iazkoak, ez aurkeztuak

Ondorioz, aurten udalak 31 familiari egingo die %50aren hobaria, Ondasun Higiezinaren gaineko zergaren kuota osoan.

Padroia onartzeko eskatzaileek, estatu mailako erregistro ziurtagiria aurkezu behar dute, beste jabetzarik ba ote duen jakiteko. Ziurtagiri bakoitzak 10,91 euroko kostua du. Orain arte udalak ordaindu du.

2017ko martxoaren 17an buruturiko Gizarte eta Politika Feminista eta Aniztasuna Batzordearen irizpena kontutan izanik hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

#### **ERABAKIA**

BAKARRA: Onartzea erregistro orokorrek ziurtagiria eskatzeak dakarren kostua eskatzailearen kontura izatea.

### **3.3- PEÑASCAL KOOPERATIBA ETA TOLOSAKO UDALAK SINATURIKO HITZARMENAREN LUZAPENERA ATXIKIPENA ONARTZEA**

2016 urtean Tolosako Udalak eta inguruko udal gehienek Peñascal S.COOP.arekin hitzarmen bat sinatu zutela Larrialdiko Laguntza Teknikoak kudeatzeko. Honen arabera zerbitzu honen kostua udalerrri guztien artean finantzatzen da biztanleen arabera.

Iaz, Ibarra Udalari 584,88 euro zegokion ordaintzea eta horrela egin zuen.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

2016 urtean Ibarra udalak zituen laguntza teknikoak Peñascalek duen biltegiara eman ziren eta hiru hiritar onuratu dira zerbitzu honekin.

Aurten, hitzarmenaren luzapena sinatu da eta Ibarra Udalak atxikitzeko proposamena jaso du. Bidezkoa denez, atxikitzea proposatzen da iazko baldintza ekonomiko berberekin.

2017ko martxoaren 17an buruturiko Gizarte eta Politika Feminista eta Aniztasuna Batzordearen irizpena kontutan izanik hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

### **ERABAKIA**

**LEHENENGOA:** Onartzea Tolosako Udalak eta Peñascal kooperatibak, 2016/03/14 datarekin sinatu zuten lankidetzaz hitzarmenera luzapenera atxikitzea. Luzapena 2017ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31 arte izango da.

**BIGARRENGOA:** Zerbitzuaren kostua Tolosako Udalarik ordaintzea biztanleriaren arabera egin den banaketaren arabera. Zerbitzuaren kostua hitzarmenaren bigarren klausulako lehenengo eta bigarren puntuetan jasotakoaren arabera izango da.

**HIRUGARRENGOA:** Ordainketa 226.231.00.06 partidatik egingo da.

**LAUGARRENA:** Tolosako Udalarik eta Kontuhartzaitzari erabaki honen berri ematea.

### **3.4- ESKUHARTZE FAMILIARRA S.O.R.O FAMILIA**

Tolosatik bidalitako kasua heldu zaigu. Neska gazte bat, separatuta, genero indarkeriaren biktima, bi haur txikirekin (3 urte eta urte betekoak).

Hiru urteko neskatoaren pediatrak, ustezko sexu abusuak jasan dituen zantzuak zeudela jakinarazi zion Tolosako Gizarte Zerbitzuari. Protokoloa aktibatuta ondoren eta



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

urruntze aginduak eraginda, ustezko erasotzailea, ez zela haurraren gana hurbiltzen, ebatzi zuen Foru Aldundiak.

Hala ere, gertatutakoa argitzearren, eskuhartze plana proposatu zen IZAN kabinete psikoterapeutaren bitartez. Hiru hilabeteko eskuhartze proposamenak 3.370,50 euroko kostua zuen. Tolosako udalak onartu egin zuen, haurraren babesaren aldera.

Bitartean, familiak, Ibarra lortu zuen alokairuzko etxebizitza. Tolosako gizarte zerbitzuak, kasua igorri digute, informazio guztia emanez.

Ustezko erasotzailea Tolosan bizi denez, eta emazte ohia, adin txikikoekin Ibarra, eskuhartzearen kostua erdibana egitea proposatzen da.

2017ko martxoaren 17an buruturiko Gizarte eta Politika Feminista eta Aniztasuna Batzordearen irizpena kontutan izanik hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

#### ERABAKIA

LEHENENGOA: Onartzea egoera larri hau Tolosako Udalak eta Ibarra Udalak batera izapidetzea eta bide batez kasuaren kostua erdibana ordaintzea.

BIGARRENGOA: Eskuhartzearen kostua (erdia alegia), 1.685 euro, Ibarra Udalak ordainduko du 227.231.00.04 partidatik.

HIRUGARRENGOA: Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitza sailari.

#### **LAUGARRENA:**

#### **4.- ARTXIBOAREN XAHUKETA EGITEKO ZERBITZUA PROZEDURA IREKI BIDEZ ESLEITZEKO PLEGU ADMINISTRATIBO ETA TEKNIKOAK ONARTZEA.**

Ibarra Udaleko artxiboan egun leku arazoa dugu. Azken xahuketa 2002.urtean burutu zen eta egun berriz egiteko beharra dugu.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Kontratu honen bidez leku gabezia konponduko da eta bide batez espedienteen: balorazioa, xahuketa (Eusko Jaurlaritzako taulen arabera), barne garbiketa eta txukuntzea, karpeten sorrera eta etiketatzea, sailkapena...egingo da.

Kontratuaren balio estimatua 32.000 eurotakoa da eta nahiz partida izendaturik egon (1.0000.227.920.00.07), partida honen kontsignazioa haunditu beharko da kreditu aldaketa espediente bat erabiliz (kreditu gehigarrien modalitatea alegia). Beraz, kontratua baldintzatua gelditzen da kreditu gehigarri honetara (pleguetan adierazten da egoera hau).

Idazkaritzak aurkezten duen plegu administratibo eta teknikoaren azterketa burutu ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

#### ERABAKIA

**LEHENEGOA:** Onartzea Artxiboaren xahuketa egiteko zerbitzua prozedura ireki bidez esleitzeko plegu administratibo eta teknikoak.

**BIGARRENGOA:** Pleguak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, argitaratu eta 15 egun naturaleko epean proposamenak aurkeztu ditzaten.

#### **BOSGARRENA:**

#### **5.- KONTRATUEN ZERRENDAK**

Idazkaritzatik egun Udalean dauden kontratu guztien berrikuspena egin behar dela adierazten da. Berrikuspen horrekin lortu nahi da kontratu guztiak egoki jartzea eta prozedura guztiak egoki zehaztea.

Horretarako sail bakoitzeko arduradunak bere sailean dauden kontratu guztien berri eman beharko du eta zerrenda bat prestatu beharko da. Zerrenda hau idazkariak izateaz gain, politiko guztiei helaraziko zaie eta, bide batez, dena txukuntzean Ibarra Udalaren web orrialdean jarriko da. Honela, kontratu guztien jarraipen zehatza egingo da.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Zerrenda horretan honako datuak agertu beharko dira:

- Kontratuaren objetua
- Zein enpresari esleitu zaion
- Zein urtean egin den esleipena
- Noiz amaitzen den kontratua
- Zenbateko kostua duen kontratuak

Idazkaritzak aurkezten duen proposamenaren azterketa burutu ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

#### ERABAKIA

LEHENEGOA: Onartzea Idazkariak aurkezten duen proposamena eta ondorioz Ibarra Udaleko teknikari guztiei eskatzea 2017ko maiatzaren 20rako kontratuen zerrenda aurkeztea Idazkaritzan.

BIGARRENGOA: Zerrenda word formatuan aurkeztuko da eta idazkariaren emailera igorri beharko da.

HIRUGARRENGOA: Erabaki honen berri ematea udaleko departamentu guztiei.

#### **SEIGARRENA:**

#### **6.- EUSKAL HERRIA 18 ETXEBIZITZAN ERRENTAN DAUDEN GAZTEEN ARTEAN ZORDUN EGOERAN DAGOEN KASUA.**

Euskal Herria 18-2 ko 1-D etxebizitzan dagoen gazteak zorrak ditu Ibarra Udalarekin hilero dagokion kanona ez baitu ordaindu. Egun honako zor hauek ditu:

- 2016ko abenduak kanona 100 euro
- 2016ko abenduko kanona ez ordaintzeagatik %5eko erreargua 5 euro
- 2017ko urtarrilaren kanona 250 euro
- 2017ko urtarrilaren kanona ez ordaintzeagatik %5eko erreargua 12,50 euro
- 2017ko otsailaren kanona 250 euro



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

- 2017ko otsailaren kanona ez ordaintzeagatik %5eko erreargua 12,50 euro
- GUZTIRA: 630 euroko zorra

2017ko martxoaren 3an, gazteak 500 euroko diru sarrera bat burutu zuen Ibarra Udalaren alde. Oraindik 130 euroko zorra du Udalarekin eta egun gutxi barru martxoko kanona ordaintzea eskatuko zaio.

Guztia aztertu ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

### **ERABAKIA**

**LEHENEGOA:** Euskal Herria 18-2 ko 1-D etxebizitzan dagoen gazteari jakinarazi martxoak 31rako aurrez Ibarra Udalarekin duen zorra, 130 euroak, eta martxoko errenta 250 euroak ordaindu behar dituela. (guztira 380 euro alegia).

**BIGARRENGOA:** Jakinarazten zaio ordaindu ezean, Ibarra Udalak bere jabetza den etxebizitzatik (Euskal Herria 18-2 ko 1 D) kanporatu beharko duela 15 eguneko epean.

**HIRUGARRENGOA:** Jakinarazten zaio jada behin baino gehiagotan atzeratu dituela ordainketak eta Euskal Herria 18-2 etxebizitzetako arauak eta bere garaian sinatu zuen kontratua urratzen dituela. Etorkizunean beste ez-betetze bat egiteak, zuzenean etxebizitza uzteko prozedura martxan jarriko duela gogorarazten zaio.

Eta bestelako aztergairik ez dagoenez, goiburuko eguneko hamaikak eta hogeita sei direnean, lehendakariak bilera amaitutzat ematen du eta nik, bitarteko idazkari naizen honek, akta hau egiten dut, bertan esandako eta erabakitako guztiaren berri jasoz.